

Ezpalak

JON TORNER

Fernando Beorlegui margolaria hilaren 6an hil zen, Irunen, 79 urte zituela. Beorlegui Arrizabalagan (Nafarroa) jaio zen, baina Eibarren (Gipuzkoa) margotu zuen koadro gehien. Daniel Txopitea, Paulino Larrañaga eta Marino Plaza artisten adiskide izan zen, eta aurreneko biek Goruntz taldea sortu zuen 1974an.

Nagore Lozano

eta Sahatsa Jauregiak euren argazki eta marrazkiak jarri dituzte ikusgai Herri Biteri kultur etxean. *Bi Spera* izeneko erakusketa urtarrilaren 29a arte izango da zabalik.



Josune Arizondo izango da hurrengo urteetan Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatu berria. Arizondok 2000. urtetik 2007ra Euzkadi Buru Batzarreko idazkaritzan egin du lan. Orain arte Kultura diputatua Belen Greaves izan da.

Alexandra Baurés argazkilari frantziarrak *Diario Kilómetro* izeneko erakusketa



paratu du Iruñeko Contraluz galerian. Hilaren 31 arte izango dira argazkiak ikusgai.

Film ugari eskainiko dituzte Bilboko Gay-Lesbo-Trans Zinema Jaialdian

Hilaren 21ean Arriaga antzokian egingo den galak emango dio hasiera Zinegoak Bilboko Gay-Lesbo-Trans Zinema jaialdiaren bosgarren edizioari. Urtarrilaren 27ra bitartean film labur eta luze ugari proiektatuko dituzte



Capitol zinematuan, Bilborocken, Fnac-en eta El Carmen aretoan. *No regret* filmak (argazkian) jarriko du abian jaialdia, urtarrilaren 22an, arratsaldeko 17:00etan Capitol zinematuan. Egitarau osoa www.zinegoak.com webgunean kontsulta dezakezue.

Herri idazleak bilduko dira Bardozen

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAK antolatuta, *Liburiko Egunak, Herri idazleak Bardozen* jardunaldiak egingo dituzte hilaren 18tik 20ra bitartean Lapurdiko herri horretan. Frantziako Estatuko hizkuntza gutxi-tuetako 25 idazlek —euskaldunek, korsikarrek, alsaziarrek, okzitaniarrek...— parte hartuko dute hitzaldi, mahai-inguru, errezitaldi eta gainerako ekitaldietan. Informazio gehiago: www.idazleak.org.

Hamaika Bertuteraren 1. urteurrena

HAMAIKA BERTUTE taldeak lehen urteurrena ospatu zuen pasa den larunbatean Durangoko Plateruenan. Berrogeita lau bertsularik eta hiru gai-jartzailek egin dute jada bat ekimenarekin. Taldeko kideek agertu dutenez, iaz 170 saio ingururen antolakuntza lanetan izan ziren bitartekari. Saio gehienak Gipuzkoan eskaini zituzten.

Unai Busturia komikigileak *Aldaketa 16n*: «Komikitik bizitzea oro har oso zaila da. Euskarazko komikitik bizitzea guretzat behintzat ezinezkoa. Hala ere, itzulpen kontu bat baino ez da. Nire ustez beti egingo dugu komikia euskaraz nahiz eta gero beste hizkuntza batera itzuli. Gure pertsonaiek, buruan ditugula, euskaraz egiten dute (...) Bikain iruditzen zaigu kanpoko lan arrakastatsuak euskaratzea. Pentsa, beste herrialdeetako liburuak itzuliko ez balira. Gehiago itzuli beharko lirakeke, oso eskaintza txikia dago eta».

Martin Altzueta komikigileak *Diario de Navarra*: «Komikiak gutxi irakurtzen dituzte, baina ez dut uste hori Nafarroan soilik gertatzen denik. Orokorra da eta gainera beti hartu izan da maila baxuagoko generotzat... Artearen esparruan, zarzuelak musikaren esparruan duen garrantzia bera dauka (hori, noski, ez da nire iritzia) (...) Komikiaren egoera une honetan txarra da, Internet hortxe dagoen arren...».

Pedro Manterola **Jorge Oteiza** museoko zuzendariak *El Correo*: «Gure garaiko kultura ikuskizunaren kultura da, gauzak dibulgatzeko arinkeriaz jokatu beharra duen kultura (...) Guggenheim oso eraikin ederra da; arkitektura pertsonal bati erantzuten dio baina funtzionatzen du. Gaur egun Guggenheim kritikatzeko, mundu guztiak goraipatu dituen efektuen ostean, Gorenaren aurka ari-tzearen parekoa da (...) Museo berrien arketipoa da, eragin sozio-politiko handikoa. Baina niri jende lepo egon ohi diren museoak ez zaizkit gustatzen».

Jon, Musika Armatu Komandoko (MAK) kideak *Garan*: «Egia da gaur egun gutxi garelako euskaraz rapeatzen, baina ikusiko duzu, hamar urteren buruan, oroituko garelako garai batez rock eta punk musika baizik ez zela egiten Euskal Herrian! Gure ustez, garai batez punk eta rock musikek adierazten zuten errabia, rapak ekar lezake».

Ahuleziatik eta zuhurtasunetik sortzen da askatasuna

Iparretarrak. Erakunde politiko armatu baten historia. Eneko Bidegain. (Gatuzain, 2007).

"Ipar Euskal Herriaren askatasunaren alde nahiz Hegoaldearekiko emantzipazio politikoaren alde borrokatu zuten militanteen agerbide interesgarria irudi zaigu liburu" idatzi dut berriki ARGIA, liburuaren egilearekin izan elkarrizketaren harian. Lehen pertsonaren pluralean orduan, singularrean orain, Iparretarrak (IK) fenomeno soziopolitikoak iradokitako hainbat aburu nire baitatik erazte aldera.

Iparretarrak erakundea, bere hasieran, Iparaldeko etarrekin —etakideek— osatu zuten funtsean. Euskaraz bizi eta idazten dugunok "etarra" izenondoa baztertu dugu eta "etakidea" hobetsi. Espainiako Lengua Españolaren hiztegiaren aldiz, "etarra" adjektiboak "Perteneciente a la banda terrorista vasca E.T.A." dio. Espainiarrek *-ar* edo *-tar* euskal atzizkia bere egin dute. Mespretxatzeko edota gutxiesteko erabilia betiere. Historiaren paradoxa.

ETAk EAJ aitatzat nola, hor nonbait izan zuen IK-k ETA. Jeltzaleek *-ar* atzizkia nola, hala erabili zuten berau ere etazaleek. Historiaren bilakabidean aitatasunak badu bere munta inondik ere. Historia, politikoa izanagatik edo horregatik beragatik, pertsonok osatzen dugu inola ere.

Aita izan da nagusia gure epikan —eta hierarkia edipikoan—, Ama berriz Euskal Herria. Ama Euskal Herria bere egin nahian, aita ezin akabatuz dihardute oraindik ere askatasunaren semeek —eta alabek—; *vascos y vascas* alegia. Herri honen askatasunaren xerka, askatzaila aita akabatu beharrez, emantzipatu beharrez, Ama akabatuko duten beldurak inarosten nau ni neroni.

Freudiano edo freudiar soberaxko jalgitzen ari zait idatzia. Aitor dut. Alta bada, Ama Euskal Herriaren aldeko eta IK erakundearen aldeko puja berde bat erantsi nahi nioke gure —Ama— arbolari. Aita eta boterea bikote gisa hartuta, Iparretarrak erakundea aitonen —edo aitoren— seme izanagatik, aitonak zein

aitak berezko zuten ahalmenik edo botererik gabe jaio zen.

Baliteke, gure iparreko espresio soziopolitikoaren ahalmen mugatuak Ama Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka armatuaren bidean Iparretarrak gelditzera behartu izana. Baliteke halaber, botere mugatuak

borrokatzeko gaitasuna murriztu eta maitatzeko beste modu batzuk xerkatzera bideratu izana. Hots, Ama maitatzeko hainbat molde dagoela ulertu eta onartu izana.

Anartean, Hegoaldeko aitonek eta aitek —eta semeek— ez dute ulertu ez onartu ere, ez dela posible boteretsu izatea eta maite izatea aldi berean, maitatua akabatu gabe. Eta aitona berekoia delako Ama hiltzen ari dela uste duen aita, aita altruistaren jokabidea hartu izanagatik, Amaren askatasunaren alde egiten duela sinetsita bizi izanagatik, nahiko adina badu semearen jokabide eta zori ahula onartzeko.

Azkenik, aitona, aita nahiz semearentzat hiruna aburu: "Egoismoan oinarritutako 'askatasun' estasiak pertsona akabatzen du. Zorionik gabeko askatasunak esklabo egiten gaitu. Ahuleziatik eta zuhurtasunetik sortzen da indarra, askatasuna eta zoriona, aldian-aldian".

Abarrak

MIKEL ASURMENDI



gure!
arteaz
euskaraz

